**Hirugarrena.—*Aurrekontu-izendapena***

Dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak ondoren aipatzen diren aurrekontuko partiden eta hornituren kontura emango dira. Hornidura horiek aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahal izango dira.

Partida: 0806/G/320203/44300 2013/00048.

— Hainbat urtetarako gastua: 1.159.000 euro.

— Zenbatekoa, ekitaldietan banatua:

• 2015. urtea: 705.000 euro.

• 2016. urtea: 454.000 euro.

Partida: 0806/G/320203/44900 2013/00048.

— Hainbat urtetarako gastua: 50.000 euro.

— Zenbatekoa, ekitaldietan banatua:

• 2015. urtea: 30.000 euro.

• 2016. urtea: 20.000 euro.

Partida: 0806/G/320203/45100 2013/00048.

— Hainbat urtetarako gastua: 41.000 euro.

— Zenbatekoa, ekitaldietan banatua:

• 2015. urtea: 25.000 euro.

• 2016. urtea: 16.000 euro.

Emango diren laguntza guztien zenbatekoak 1.250.000 euroko gehienezko muga izango du; zenbateko horrek estimazio izaera du, eta aldatu egin ahalko da 34/2010 Foru Dekretuko 41. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Halaber, aurrekontu-kredituen arteko banaketa gutxi gorabeherakoa da; aurkeztutako eskabideak kontuan hartuta, eta erakunde onuradunak era askotakoak izan daitezkeenez, ezarritako diru-izendapenak artikulu horretan azaldu diren partiden artean banatu ahal izango dira, betiere guztirako muga gainditu gabe.

Bilbon, 2015eko martxoaren 17an.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-613)

•

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 40/2015 FORU DEKRETUA, 2015eko martxoaren 17koa, Bizkaiko gazteen enplegagarritasuna sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia ezartzen dituena.**

Dekretu honen esparruaren barruan, enpleguaren aldeko jarduerek Bizkaiko gazteen enplegagarritasuna sustatzea bilatzen dute, bi jardueraren bitartez: bata, lehen enplegua sustatzeko helburuarekin, praktikaldiko kontratazioaren bidez; bestea, langabezian dauden 30 urtera arteko gazteen kontratazio mugagabea sustatzeko helburuarekin.

Gehienez 30 urte duten gazteentzat da praktikaldiko kontratua, lan-mundura sartzeko zailtasunak dituen kolektibo bat baita.

Halako kontratuen xedea zera da: langile gazteek beren titulazioari dagokion lanbidean jarduteko behar dituzten ezagutzak eskuratzea eta, horrela, ikasketa-garaian jaso dituzten ezagutza teorikoak osatzea. Xede berezi horrek justifikatzen du praktikak aldi baterako izatea.

Beste alde batetik, praktikaldiko kontratuak titulua eskuratu berri duten pertsonak kontratatzeko erraztasuna ematen die enpresei, eta, aldi berean, langileek aukera izaten dute beren ikasketa-mailari dagokion eta beharrezko duten esperientzia lortzeko. Bistan denez, eskarmentu horrek esperientziarik ez duten langileak baino posizio hobean jarriko ditu lan-merkatuan.

**Tercera.—*Consignación presupuestaria***

Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo al presente Decreto, se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias, sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente.

Partida: 0806/G/320203/44300 2013/00048.

— Gasto plurianual 1.159.000 euros.

— Importe y distribución por ejercicios:

• Año 2015: 705.000 euros.

• Año 2016: 454.000 euros.

Partida: 0806/G/320203/44900 2013/00048.

— Gasto plurianual: 50.000 euros.

— Importe y distribución por ejercicios:

• Año 2015: 30.000 euros.

• Año 2016: 20.000 euros.

Partida: 0806/G/320203/45100 2013/00048.

— Gasto plurianual: 41.000 euros.

— Importe y distribución por ejercicios:

• Año 2015: 25.000 euros.

• Año 2016: 16.000 euros.

El importe total de las ayudas que se concedan tendrá como límite máximo estimativo la cantidad de 1.250.000 euros, y se podrá modificar conforme a lo previsto en el artículo 41 del Decreto foral 34/2010 en relación a los límites de las cuantías máximas. Asimismo, la distribución entre los créditos presupuestarios tiene carácter estimativo, por lo que en función de las solicitudes presentadas y debido a la distinta naturaleza de las posibles entidades beneficiarias las consiganciones presupuestarias se podrán distribuir entre las distintas partidas señaladas en este artículo, sin superar el límite global fijado.

En Bilbao, a 17 de marzo de 2015.

El diputado foral de Promoción Económica,
IMANOL PRADALES GIL

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-613)

•

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 40/2015 de 17 de marzo de 2015, por el que se establecen las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones para la promoción de la empleabilidad de jóvenes en Bizkaia.**

En el marco de este Decreto las actuaciones a favor del empleo tienen como objetivo el apoyo a la promoción de la empleabilidad de las personas jóvenes en Bizkaia, a través de dos actuaciones: una con el objetivo de promocionar el primer empleo mediante el contrato en prácticas, y otra con el objetivo de fomentar la contratación indefinida de las personas jóvenes, de hasta 30 años, en situación de desempleo.

El contrato en prácticas está dirigido a jóvenes de hasta 30 años, por ser un colectivo que tiene difícil el acceso al mercado laboral.

Dicho contrato tiene como objeto la adquisición por la persona joven trabajadora de los conocimientos prácticos necesarios para el ejercicio de la profesión cuya titulación ostenta, para completar de esta forma los conocimientos teóricos ya adquiridos durante el período de enseñanza, siendo esta especial finalidad la que justifica la duración temporal.

Por otra parte, a través de dicho contrato se facilita a las empresas la contratación de personas recién tituladas, para que éstas puedan a su vez adquirir la experiencia necesaria y adecuada a su nivel de estudios, que evidentemente las colocará en el mercado de trabajo en mejor posición que aquellas otras que no la tienen.

cve: BAO-BOB-2015a060

Gazteei kontratu mugagabea eginez gazteen kontratazioa sustatu nahi da; izan ere, langabeziak bereziki kaltetzen duen sektorea da.

5/2005 Foru Arauko 20. artikuluan aurrez ikusten den norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez emango dira laguntzak. Prozedura horren bidez, laguntzak modu eraginkorrean eslei daitezke, eskariak jaso ahala ematen baitira laguntzok. Horrela, 2015 urtean zehar egiten diren praktikaldiko kontratu guztiei lagundu ahalko zaie, aurrekontuan erabilgarri dagoen diruak horretarako aukera ematen badu. Honako hauek eskatu ahalko dute diru-laguntza deialdi honetan: Bizkaiko enpresek (haien forma juridikoa gorabehera), enpresari indibidual eta profesionalek, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte, fundazio eta irabazteko asmorik gabeko beste erakunde batzuek ere.

Halaber, genero ikuspegiari dagokionez, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako foru planean Ekonomia Sustatzeko Sailak bere helburuak zehaztu zituen, eta haien arteko bat da, hain zuzen ere, sailaren laguntzen eta diru-laguntzen deialdietan zeharkako bihurtzea generoaren ikuspegia, sailak funtseko tresnatzat jotzen baitu zeharkakotasun hori, gizarteari ezagutarazteko zein den berdintasunak duen garrantzia.

Horrenbestez, Ekonomi Sustapeneko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 17ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT:

**Artikulu bakarra**

onartzen dira Ekonomia Sustatzeko Sailak praktikaldiko kontratuaren bidez enplegagarritasuna sustatzeko emango dituen diru-laguntzen oinarriak eta deialdia.

I. TITULUA

**30 URTERA ARTEKO GAZTEEN ENPLEGAGARRITASUNA SUSTATZEA**

**1. artikulua.—*Xedea***

Ekimen honen xedea da oinarriak eta arauak ezartzea, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak praktikaldiko kontratuen bidez enplegagarritasuna sustatzeko emango dituen diru-laguntzetarako.

1. Praktikaldiko kontratua, 6 eta 12 hilabete bitartekoa.
2. Kontratu mugagabea.

**2. artikulua.—*Erakunde onuradunak***

Honako hauek izan ahalko dute diru-laguntzen onuradun: Bizkaiko enpresak (haien forma juridikoa gorabehera), enpresari indibidual eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte, fundazio eta irabazteko asmorik gabeko beste erakunde batzuek ere.

Erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Egoitza eta zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Lantokia ere lurralde horretan eduki behar dute.

250 langile baino gutxiago edukitzea.

Aurreko betekizun horiek betetzen ez dituzten enpresek ezin dute %25 baino gehiagoko partaidetza izan erakunde onuradunean, zuzenean edo zeharka.

Enpresari indibidualen edo profesionalen kasuan, ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dutela egiaztatzea.

Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

El contrato indefinido realizado a los jóvenes, pretende reforzar la contratación juvenil por ser uno de los sectores de población más afectados por el desempleo.

Estas ayudas se otorgarán por el procedimiento de libre concurrencia previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, este procedimiento posibilita la asignación de las ayudas de forma eficaz, mediante el otorgamiento según se reciban las peticiones, a fin de poder ayudar a todos aquellos contratos en prácticas y contratos indefinidos de jóvenes de hasta 30 años realizados durante el año 2015 siempre que las disponibilidades presupuestarias lo permitan. Podrán solicitar la ayuda las empresas de Bizkaia cualquiera que sea su forma jurídica, empresarios y empresarias individuales y profesionales, comunidades de bienes y sociedades civiles, así como las Asociaciones Fundaciones y otras entidades sin ánimo de lucro, del Territorio Histórico de Bizkaia.

Asimismo, en referencia a la perspectiva de género, dentro del IV Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres en Bizkaia, el Departamento de Promoción Económica fija sus propios objetivos entre los que figura transversalizar la variable de género en sus diferentes convocatorias de ayudas y subvenciones ya que se entiende como una herramienta fundamental para trasladar a la sociedad la importancia de la igualdad.

Por todo lo expuesto, a propuesta del Departamento de Promoción Económica y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 17 de marzo de 2015.

DISPONGO:

**Artículo único**

Se aprueban las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones por el Departamento de Promoción Económica para la promoción de la empleabilidad de jóvenes en Bizkaia.

TÍTULO I

**PROMOCIÓN DE LA EMPLEABILIDAD DE PERSONAS JÓVENES HASTA 30 AÑOS**

**Artículo 1.—*Objeto***

Es objeto del presente Título establecer y regular las ayudas que el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia podrá conceder para apoyar la promoción de la empleabilidad mediante el apoyo a dos tipos de contratos con personas jóvenes de hasta 30 años:

1. Contrato en prácticas de 6 o de 12 meses.
2. Contrato indefinido.

**Artículo 2.—*Entidades beneficiarias***

Podrán ser beneficiarias de las ayudas previstas en el presente Decreto las empresas de Bizkaia, cualquiera que sea su forma jurídica, los empresarios y empresarias individuales y profesionales, las comunidades de bienes y sociedades civiles, así como las Asociaciones, Fundaciones y otras entidades sin ánimo de lucro, del Territorio Histórico de Bizkaia.

Las entidades beneficiarias, deberán cumplir además, las siguientes condiciones:

Tener su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia. Asimismo, el centro de trabajo, radicará también en dicho territorio.

Tener una plantilla inferior a 250 personas.

No hallarse participada directa o indirectamente en más de un 25% por empresas que no reúnan los requisitos anteriores.

Acreditar residencia habitual en el Territorio Histórico de Bizkaia en el caso de empresarios o empresarias individuales o profesionales.

Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

cve: BAO-BOB-2015a060

Onuradunak izateko, erakundeek ezin dute egon Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako inongo debekuren mendean.

Ezin dira erakunde onuradun izan: administrazioaren edozein esparrutan (tokiko administrazioan, foralean, autonomia erkidegokoan edo zentralean) administrazioari lotuta dauden edo haren mendekoak diren erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakundeak, ez eta lanbide heziketako zentro publikoak eta pribatuak eta aldi baterako laneko enpresak ere.

Bi kasutan soilik aldatu ahalko da diru-laguntzaren erakunde onuraduna: enpresa onuraduna desagertu, fusionatu edo eraldatzen den subrogazio kasuetan, batetik, edo, bestetik, legez hala xedatzen den kasuetan. Dena den, enpresa berriak dekretu honetako 2. artikuluan aurrez ikusitako baldintzak bete beharko ditu. Gainerako kasuetan, dekretu honetako 19. artikuluan aurrez ikusten den ez-betetze prozedura abiaraziko da.

**3. artikulua.—*Gehienez ere emango den laguntza***

Ekimen honen barruan, erakunde onuradun bakoitzari ezingo zaizkio eman 90.000 euro baino gehiago diruz lagundu dakizkiokeen jarduera guztietarako, eta erakunde batek ezingo du 10 kontratazio baino gehiago egin.

**4. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen ekintzak eta betekizunak***

12 edo 6 hilabeteko praktikaldiko kontratu batek erakunde onuradunari dakarkion gastua izango da diruz lagundu daitekeen jarduera.

Praktikaldiko kontratu 6 hilabete edo 12 hilabete iraun beharko du gutxienez, eta kontratua hasten denean gehienez 30 urte (adin hori barne) dituzten pertsonei egin behar zaie. Halaber, kontratu mugagabea kontratua hasten denean gehienez ere 30 urte (adin hori barne) dituzten pertsonekin egingo da.

Sei hilabeteko praktikaldiko kontratutzat jotzen dira 2014ko azaroaren 1aren eta 2015eko irailaren 30aren artean hasi, 6 hilabete iraun eta aurreko baten luzapena ez diren praktikaldiko kontratuak.

Hamabi hilabeteko praktikaldiko kontratutzat jotzen dira, berriz, 2014ko azaroaren 1aren eta 2015eko irailaren 30aren artean hasi eta, hasiera batean, hamabi hilabete irauten dutenak, baina baita 2014ko azaroaren 1aren eta 2015eko irailaren 30aren artean hasi, sei hilabete iraun eta, 2015ean, beste sei hilabetez luzatzen direnak ere. Azken kasu horretan, luzapena formalizatuta dagoenean soilik eskatu ahalko da diru-laguntza.

Kontratu mugagabetzat hartuko da zerbitzuaren iraupenean mugarik ezarri gabe ituntzen dena eta 2014ko azaroaren 1aren eta 2015eko irailaren 30aren bitartean hasten dena.

Enpresa berak ezin izango du eskatu bi diru-laguntza langile berari praktikaldiko bi kontratu egiteagatik, ez eta praktikaldiko bat eta mugagabe bat egiteagatik ere.

Enpresa batek ezin izango du kontratu mugagabe bategaitik pertsona berdinarekin, aurreko urtean eskatu badu, beste diru-laguntza eskaera bat egin.

2014ko azaroaren 1etik 2015eko irailaren 30era bitartean formalizatzen diren kontratuak lagundu ahalko dira.

*Kolektiboen betekizunak*

1. Kontratatutako pertsonek Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako lantokietan egin beharko dituzte beren zerbitzuak. Halaber, Bizkaian izan beharko dute egoitza. Azken baldintza hori kontratuaren indarraldi osoan zehar bete behar da.

2. Kontratuak langileen heziketa akademiko eta profesionalarekin bat datozen lanpostuetarako izan behar dira.

3. Lansaio osoko kontratuak egin behar dira, edo lansaio partzialekoak, baina, partzialetan, kontratua hasten denetik eta haren indarraldi osoan zehar ezarritako ohiko lansaioaren %50 izan behar du, gutxienez, lansaioak.

Para ser beneficiarias, las entidades no pueden verse afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la NFS.

Quedan excluidas de la condición de entidad beneficiaria, los organismos autónomos y las sociedades públicas y asociaciones o entidades sin ánimo de lucro dependientes o vinculadas a cualquier ámbito de la administración local, foral, autonómica o central, los Centros públicos y privados de formación profesional, las empresas de trabajo temporal, así como cualesquiera otras entidades privadas dependientes o vinculadas a las anteriores.

Únicamente procederá el cambio de entidad beneficiaria de subvención, en los supuestos de subrogación en los que la empresa beneficiaria se extinga, se fusione o se transforme, o en los supuestos en que legalmente así se disponga. En todo caso la nueva empresa deberá de cumplir los requisitos previstos en el artículo 2 del presente Decreto. En el resto de supuestos, se iniciará un procedimiento de incumplimiento previsto en el artículo 19 del presente Decreto.

**Artículo 3.—*Límite máximo de ayuda***

La cuantía de la subvención a otorgar a cada entidad beneficiaria por el conjunto de actuaciones subvencionables, en esta iniciativa, no podrá rebasar el límite de 90.000 euros, ni superar un máximo de 10 contrataciones.

**Artículo 4.—*Acciones subvencionables y requisitos***

Será subvencionable el coste para la entidad beneficiaria del contrato en prácticas de 6 ó de 12 meses de duración y del contrato indefinido.

El contrato en prácticas deberá tener una duración mínima de 6 meses ó de 12 meses y se realizará con personas de hasta 30 años de edad inclusive a la fecha de inicio del contrato. Igualmente el contrato indefinido se realizará con personas de hasta 30 años inclusive a la fecha de inicio del contrato.

Se entiende por un contrato en prácticas de 6 meses, el contrato en prácticas iniciado entre el uno de noviembre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015, con una duración de 6 meses, que no sea una prórroga de otro anterior.

Se entiende por un contrato en prácticas de 12 meses, el contrato en prácticas iniciado entre el uno de noviembre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015, con una duración inicial de 12 meses, y el contrato en prácticas de 6 meses iniciado entre el uno de de noviembre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015, y prorrogado por otros 6 meses durante el año 2015. En este último supuesto sólo se podrá solicitar subvención en el momento en el que la prórroga esté formalizada.

Se entiende por un contrato indefinido aquel que se concierte sin establecer límites de tiempo en la prestación del servicio en cuanto a la duración del contrato, y se inicie entre el uno de noviembre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015.

Una misma empresa no podrá realizar dos solicitudes de subvención con la misma persona trabajadora por dos contratos en prácticas, ni por uno en prácticas y uno indefinido,

Una misma empresa, no podrá realizar otra solicitud de subvención con la misma persona trabajadora por un contrato indefinido por el que hubiera solicitado subvención el año anterior.

Se subvencionarán los contratos formalizados entre el uno de noviembre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015.

*Requisitos de los colectivos*

1. Las personas contratadas deberán prestar sus servicios en centros de trabajo radicados en el Territorio Histórico de Bizkaia. A su vez, deberán ser residentes en Bizkaia, requisito que deberá cumplirse durante toda la vigencia del contrato.

2. Las contrataciones deberán referirse a puestos de trabajo acordes a la formación académico profesional de la persona contratada.

3. Los contratos deberán ser a jornada completa o a jornada parcial, siempre que ésta represente un mínimo del 50% de la jornada habitual establecida desde la fecha inicio contrato y durante toda su vigencia.

cve: BAO-BOB-2015a060

4. Enpresari indibidual baten ezkontidea kontratatzeagatik ez da diru-laguntzarik emango, ez eta haren aurreko edo ondorengorenak edo 2. gradura arteko odol-ahaide, ezko-ahaide edo umeorderen bat kontratatzeagatik ere. Halaber, erakunde eskatzaileetako zuzendaritza edo gobernu organoetako kideen ahaide berak kontratatzeagatik ere ez da diru-laguntzarik jasoko.

5. Onuradunek titulu hauetako bat izan behar dute praktikaldiko kontratuak egiteko: unibertsitate-titulua edo lanbide-heziketako erdimailako edo goi-mailako titulua edo ofizialki aitortutako titulu baliokideren bat (indarreko hezkuntza-sistema arautzen duten legeekin bat) edo lanean jarduteko gaitasuna ematen duen profesionaltasun-ziurtagiria (Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 2002ko ekainaren 19ko 5/2002 Legearen arabera).

Horrez gainera, ezin izan dira bost urte baino gehiago pasatu ikasketak amaitu dituztenetik, eta zazpi desgaitasuna duten langileen kasuan.

6. Edonola ere, praktikaldiko kontratuak bat etorri beharko du 1998ko martxoaren 27ko 488/98 Errege Dekretuarekin, hark garatzen baitu Langileen Estatutuko 11. artikulua; lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko irailaren 17ko 35/2010 Legeak aldatu du errege-dekretu hori.

7. Kontratuarekin hasi aurretik, mugagabearekin kontratatu diren pertsonek egiaztatu egin behar dute langabezian daudela.

8. Eskabidea aurkeztu aurretik egin behar dira kontratuaren formalizazioa eta kontratatutako pertsonari Gizarte Segurantzan dagokion erregimeneko alta eskaera.

**5. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea***

Eskariak normalizatutako eskabide-orri batean aurkeztu behar dira. Eskabide-orriaren atal guztiak bete behar dira, eta hurrengo artikuluan azalduko diren agiriak erantsi behar zaizkio.

Interneten bidez aurkeztu behar dira eskabidea (osorik eta behar den bezala beteta) eta foru agindu honen 6. artikuluan zehazten diren agiri guztiak. Horretarako, inprimaki bat dago Ekonomia Sustatzeko Sailaren web orrian (www.bizkaia.net/sustapena), eta haren bulego birtuala erabili daiteke eskabidea eta agiriak aurkezteko. Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan zehazten diren gainerako lekuetan ere aurkez daiteke eskabidea. Interneten bidez helarazten diren eskabideek automatikoki jasoko dute barne-espediente zenbaki bat.

Eskabide-orrira jo aurretik, sistemak Ekonomia Sustatzeko Sailaren Erakundeen Erregistroko inskripzioa egiteko behar diren datuak eskatuko ditu (2010eko apirilaren 21eko 61/2010 Foru Dekretuaren bidez arautu zen erregistro hori).

Erregistro horren barruko datuetan edo eskabidean egiaztatutakoetan aldaketaren bat eginez gero, Ekonomia Sustatzeko Sailari jakinarazi behar zaio.

Eskabideak aurkeztean, erakundeak baimena ematen dio dirulaguntza ematen duen organoari foru dekretu honetako 6. artikuluan ageri diren inguruabarren egiaztagiriak zuzenean lor ditzan. Horretarako, dagozkion ziurtagiri telematikoak baliatu ahal izango dira, hala ezartzen baita 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi duen 2010eko martxoaren 19ko 34/2010 Foru Dekretuko 17. artikuluan.

Deialdi bakarra egingo da: Eskabideak aurkezteko epea dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean goizeko 9etan hasiko da eta 2015eko irailaren 30eko 13:30era bitartekoa izango da.

**6. artikulua.—*Aurkeztu beharreko agiriak***

Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen ordezkariak eskabide-orriaren atal guztiak bete behar ditu, eta honako dokumentazio hau aurkeztu behar da eskabidearekin batera:

— Hartzekodun-fitxa: fitxan adierazitako kontu-zenbakiak eskabide orrian jarritako bera izan behar du. Hartzekodunfitxaren atal guztiek egon behar dute beteta, eta kasuan kasuko sinadura eta zigilu guztiak eduki behar ditu.

4. No serán subvencionables las acciones indicadas cuando se refieran a la contratación del cónyuge del empresario individual, ni de sus ascendientes, descendientes o colaterales por consanguinidad, afinidad o adopción, hasta el 2.º grado inclusive. Tampoco la de dichos parientes de los socios o miembros de los órganos de gobierno y dirección de las entidades solicitantes.

5. El contrato de trabajo en prácticas podrá concertarse con quienes estuvieren en posesión de título universitario o de formación profesional de grado medio o superior o títulos oficialmente reconocidos como equivalentes, de acuerdo con las leyes reguladoras del sistema educativo vigente, o de certificado de profesionalidad de acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional, que habiliten para el ejercicio profesional.

Asimismo no han debido de transcurrir más de cinco años, o de siete cuando el contrato se concierte con un trabajador con discapacidad, desde la terminación de los estudios.

6. En todo caso, el contrato en prácticas deberá ajustarse al Real Decreto 488/98, de 27 de marzo, por el que se desarrolla el artículo 11 del Estatuto de los Trabajadores modificado por la Ley 35/2010, de 17 de septiembre, de medidas urgentes para la reforma del mercado de trabajo.

7. Las personas trabajadoras contratadas mediante contrato indefinido han de acreditar desempleo inmediatamente antes del inicio del contrato.

8. Será preciso que la formalización del contrato y el alta de la persona contratada en el régimen correspondiente de Seguridad social sean previos a la presentación de la solicitud.

**Artículo 5.—*Forma, lugar y plazo de presentación de solicitudes***

Las solicitudes deberán presentarse en instancia normalizada cumplimentada en todos sus términos debiendo adjuntar la documentación preceptiva que se señala en el artículo siguiente.

La solicitud debidamente cumplimentada en todos sus términos y la documentación anexa detallada en el artículo 6 del presente Decreto Foral, deberá presentarse por Internet mediante el formulario que figura en la página Web del Departamento de Promoción Económica (www.bizkaia.net/sustapena) a través de su Oficina Virtual, sin perjuicio de la presentación mediante cualquier otro de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Las solicitudes realizadas por Internet, obtendrán de manera automática número de expediente interno.

Antes de acceder al formulario de solicitud, el sistema le solicitará los datos necesarios para la inscripción en el Registro de Entidades del Departamento de Promoción Económica, regulado mediante el Decreto Foral 61/2010, de 21 de abril.

Cualquier modificación de los datos incluidos en dicho registro o acreditados mediante la solicitud deberá ser comunicada al Departamento de Promoción Económica

La presentación de la solicitud conllevará la autorización de la entidad para que el órgano concedente pueda obtener de manera directa la acreditación de las circunstancias a las que se refiere el artículo 6 del presente Decreto Foral lo que podrá realizarse a través de los correspondientes certificados telemáticos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17 del Decreto Foral 34/2010 de 19 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005.

Se realizará una convocatoria única: El plazo de presentación de solicitudes comenzará a las 9 horas del día siguiente a la publicación del presente Decreto en el «Boletín oficial de Bizkaia»,y finalizará el 30 septiembre de 2015 a las 13:30 horas.

**Artículo 6.—*Documentación preceptiva***

La solicitud deberá estar debidamente cumplimentada en todos sus extremos por la persona representante de la entidad solicitante de la subvención, junto con la siguiente documentación:

— Ficha de acreedor: El número de cuenta reflejado en la misma deberá coincidir con la señalada en la solicitud. La ficha de acreedor deberá estar cumplimentada en todos sus extremos, con las firmas y sellos requeridos al efecto.

cve: BAO-BOB-2015a060

— Enpresaburu indibidualen edo profesionalen kasuan, baita sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan ere, ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dutela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria. Gainerako kasuetan, IFZ deritzona.

— Kontratatzen den pertsonaren Nortasun-agiri Nazionalaren kopia bat.

— Kontratatzen den pertsonak ohiko egoitza Bizkaian duela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria, NAN agiria egiaztatu ondoren Bizkaian bizi ez bada, edo jaio den lekua eta bizi den lekua bat ez badatoz.

— Enplegu-bulegoan jakinarazi eta/edo erregistratutako lan-kontratuaren kopia (hatz-marka, data eta identifikatzailea jarrita). Hasieran 6 hilabetekoak izan, 2015. urtean luzatu eta guztira 12 hilabetekoak diren kontratuen kasuan, hasierako kontratua eta luzapena aurkeztu beharko dira; kontratua eta luzapena, biak, enplegu-bulegoan jakinarazi eta/edo erregistratu egon behar dira (hatz-marka, data eta identifikatzailea jarrita).

— Gizarte Segurantzak kontratatzen den pertsonaren datuei buruz emandako txostenaren kopia.

— Kontratua egin zen hileko nominaren kopia.

— Praktikaldirako kontratatu den pertsona Ekonomia Sustatzeko Sailaren lan-poltsan inskribatuta badago, eta kasu horretan bakarrik, honako hauek aurkeztu beharko ditu: Lanbidek emandako «inskripzio-aldiei eta lan egoerari buruzko txostena» eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako «langilearen lan-bizitzari buruzko txostena», kontratazioa hasten den egunaz gerokoa.

— Kontratu mugagabeen kasuan, honako hauek aurkeztu beharko ditu: Lanbidek emandako «inskripzio-aldiei eta lan egoerari buruzko txostena» eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako «langilearen lan-bizitzari buruzko txostena», kontratazioa hasten den egunaz geroko

Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak nahi dituen agiri eta informazio osagarri guztiak eskatu ahalko dizkie erakunde eskatzaileei, erakundeok aurkeztu duten eskabidea ondo ebaluatu eta ebaztearren. Hala ere, eskabidean hala zehazten den kasuetan, Ekonomia Sustatzeko Sailari baimena ematen zaio kontratatzen den pertsonak Bizkaia Talent-ek kudeatzen duen Talentia programan parte hartzen duela egiaztatzen duen dokumentua eskuratzeko.

**7. artikulua.—*Laguntzen zenbatekoa***

Diru-laguntza soldata gordinaren arabera zehaztuko da, eta diruz lagunduko den kontratuaren urteko edo sei hilabeteetako soldata gordinaren %30 izango da.

Nolanahi ere, soldatari eta lanaldiari dagokienez, kontratazioaren lehen hileko nominaren edukiaren arabera ebatziko da. Diru-laguntza kalkulatzeko orduan, ez dira kontuan hartuko etorkizunean egindako aldaketak.

Urtebeteko kontratuen kasuan, 7.000 euro emango dira, gehienez, urte beteko iraupena duten kontratuen eta kontratu mugagabeen kasuan; sei hilabetekoetan, berriz, 3.000 euro, gehienez, praktikaldiko kontratu bakoitzeko.

Sei hilabeteko iraupena duten praktikaldiko kontratuen kasuan, ezin dute diru-laguntzarik jaso urteko soldata gordinaren %30 ezarri ondoren diru-laguntza kopurua 1.500 euro baino gutxiagokoa duten kontratuek. Urte beteko praktikaldiko kontratuen eta kontratu mugagabeen kasuan, kontratu baterako diru-laguntzak ezingo du inoiz izan 2.000 euro baino gutxiago.

Hala ere, aurreko paragrafoetan ezarritakoa beteta, erakunde batek diru-laguntza handiagoa jasoko du baldin eta, kontratua formalizatzeko data baino lehen, praktikaldiko kontratuen eskatzaile legez izena emana duten pertsonekin kontratua egiten badu. Horretarako, kontratatuek Ekonomia Sustatzeko Sailaren web orrian dagoen gazteen poltsan egon behar dute: http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5891&Idioma=EU. Honako

— Certificado de empadronamiento que acredite la residencia habitual en el Territorio Histórico de Bizkaia en el caso de empresarios o empresarias individuales o profesionales, sociedades civiles y comunidades de bienes. El NIF en el resto de los casos.

— Copia del Documento Nacional de Identidad de la persona contratada.

— Certificado de empadronamiento acreditativo de la residencia habitual en Bizkaia de la persona contratada, solo en el caso en que previa comprobación del DNI no resida en Bizkaia o no coincida el lugar de nacimiento y el lugar de residencia.

— Copia del contrato de trabajo registrado y/o comunicado a la oficina de empleo (con la huella, fecha e identificador). En el caso de contratos iniciales de 6 meses, que se prorroguen en el año 2015, y hagan una duración total de 12 meses, se habrá de entregar el contrato inicial y la prórroga, en ambos casos registrados y/o comunicados a la oficina de empleo (con la huella, fecha e identificador).

— Copia del Informe de datos de cotización emitido por la Seguridad Social de la persona contratada.

— Copia de la nómina correspondiente al mes en que se produjo el contrato.

— En caso de contratación en prácticas solo si la persona contratada esté inscrita en la Bolsa de empleo del Departamento de Promoción Económica, se habrá de aportar «informe de períodos de inscripción y de situación laboral» expedido por Lanbide, de la persona contratada e «Informe de vida laboral» del trabajador emitido por la Tesorería General de la Seguridad Social con fecha posterior al inicio contrato.

— En caso de contratos indefinidos, en todo caso, se ha de aportar «informe de períodos de inscripción y de situación laboral» expedido por Lanbide, de la persona contratada e «Informe de vida laboral» del trabajador emitido por la Tesorería General de la Seguridad Social con fecha posterior al inicio contrato.

En cualquier caso, el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada. No obstante se autoriza al Departamento de Promoción Económica la obtención, en los casos que así conste en la solicitud, del documento que acredite la participación en el Programa Talentia gestionado por Bizkaia Talent.

**Artículo 7.—*Cuantía de las ayudas***

La subvención se determinará en función del salario bruto, y ascenderá a un 30% del salario bruto anual, o en su caso, semestral del contrato a subvencionar.

En cualquier caso, se resolverá siempre con el contenido de la nómina del primer mes de contratación en cuanto a salario y jornada. No se tendrán en cuenta futuros cambios para el cálculo de la subvención.

La subvención máxima por contrato ascenderá a 7.000 euros en el caso de contratos en prácticas de duración de un año y en caso de los contratos indefinidos, y de 3.000 en el caso de contratos en prácticas de 6 meses de duración.

No serán subvencionables aquellos contratos cuyo importe de subvención resultante una vez aplicado el 30% del salario bruto sea inferior a 1.500 euros en el caso de contratos en prácticas de duración de 6 meses y 2.000 euros en el caso de contratos caso de contratos en prácticas de duración de un año y en caso de los contratos indefinidos.

No obstante, cumpliendo lo establecido en los párrafos anteriores, las entidades que formalicen contrato en prácticas con personas inscritas previamente a la fecha de formalización del contrato como demandantes de contratos en prácticas, a través de la web del Departamento de Promoción Económica http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5891, en la bolsa de jóvenes regulada mediante Orden Foral del Departamento

cve: BAO-BOB-2015a060

dekretu honek arautzen du poltsa hori: Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2515/2010 Foru Agindua, praktikaldiko kontratuak eskatzen dituzten gazteei zuzendutako zerbitzuaren funtzionamendurako eta enpresek eta erakundeek zerbitzua on line ingurunean erabiltzeko baldintzak arautzen dituena (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2010eko 122. zenbakia, ekainaren 29koa). Horrela, bada, diru-laguntzaren onuradun izateko Dekretu honetako baldintzak betetzen dituztenek, 1.000 euro gehiago jasoko dituzte 12 hilabeteko kontratu bat edo kontratu mugagabe bat eginez gero, edo, 500 euro gehiago, praktikaldiko kontratua 6 hilabetekoa bada. Kasu horretan, 12 hilabeteko praktikaldiko kontratuetan eta kontratu mugagabeetan 8.000 euroko diru-laguntza emango da gehienez ere kontratu baterako, eta 3.500 euro, berriz, 6 hilabeteko praktikaldiko kontratuetarako. Horretarako, 2515/2010 FAn ezarri eta derrigor bete beharreko baldintza bat da Saileko gazteen poltsan izena eman aurretik enpleguko bulego publiko batean inskribatuta egotea.

Halaber, kontratatutako pertsonak Bizkaia: Talent-ek kudeatzen duen Talentia programan parte hartu badu, 2000 euro gehiagoko diru-laguntza jasoko du 12 hilabeteko praktikaldiko kontratuen eta kontratu mugagabeen kasuan; 1000 euro gehiagokoa, praktikaldiko programaren iraupena 6 hilabetekoa denean. Kasu horretan, 12 hilabeteko kontratuetan eta kontratu mugagabeetan 9.000 euroko diru-laguntza emango da gehienez ere kontratu baterako, eta 4.000 euro, berriz, 6 hilabeteko praktikaldiko kontratuetarako.

Zenbateko hori metatu egingo zaio aurreko lerroaldean ezarritakoari, baldin eta gehieneko mugak gainditzen ez badira.

**8. artikulua.—*Laguntza emateko prozedura***

Dekretu honetan araututako diru-laguntzak norgehiagokarik gabeko araubidearen bidez emango dira, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20. artikuluan ezartzen den legez. Eta prozedura bat egingo da dekretu honetan arautzen den diru-laguntza mota bakoitzerako, bata praktikaldiko kontratuetarako eta bestea kontratu mugagabeetarako.

